



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL
ARETO FUTBOLEKO EUSKAL BATZORDEA

2015/16 Denboraldia

10. ZK DUN ZIRKULARRA

ARETO-FUTBOLEKO EUSKAL LIGA ERREGULATZEKO ARAUAK

LEHENENGOA.- 2015/16 denboraldiko ARETO-FUTBOLEKO EUSKAL LIGAn Zirkular honetan agertzen diren arauak berariaz aginduko dute, federazioaren ordenamendu juridikoa osatzen dutenei kalterik egin gabe.

BIGARRENA.- Jokoaren arauak FIFAk argitaratuko ditu.

HIRUGARRENA.- Euskal Ligako partida guztiak JOMA "GAME SALA", modeloko baloiarekin jokatu beharko dira.

Partida hastean, etxeko taldeak 5 baloi izan beharko ditu gutxienez. Horietatik, 2 arbitroarentzat izango dira, eta beste 2 kanpoko taldearentzat.

Xedapen hau betetzen ez duen klubak Lehiaketako Epailearen zigorra jasoko du.

LAUGARRENA.- Taldeek partida hasteko ezarritako ordua baino ordu erdi lehenago aurkeztu beharko dira jokalekuan. Ordu erdi lehenago ere aurkeztu beharko zaizkio lizentziak epaileari, eta kronometratzailea.

Jokalekuan ezin izango da egon bestelako jarduerarik partida hasi baino hamabost minutu lehenago, kanpoko taldeak berotze-ariketak egin ditzan.

BOSGARRENA.- Partidaren hasieran talde bakoitzak gutxienez hiru jokalaria eta taldeko ordezkari bat aurkeztu beharko ditu jokalekuan. Bestalde, etxeko taldeak zelaiko ordezkaria izan beharko du derrigorrez, eta behar bezala identifikatuta egon beharko da, bi arbitroen esanetara. Kategoria honetan parte hartzen duten klubek, **Monitor "MOS"** lizentzia izan beharko dute gutxienez eta partida guztietan aurkeztu beharko da. **Entrenatzaile "ES"** "1 Maila" edota Kirol Teknikaria lehenengo kurtsoa tituluduna aurkezteari egin gabe

Betebehar honek maila honetara igo berri diren klubak salbuesten dira. Behar hau, ez bada betetzen, Epaile Bakarrak falta arinatzat hartuko du.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL
ARETO FUTBOLEKO EUSKAL BATZORDEA

- 2 -

Klubek talde bakoitzeko aldi berean hamabost jokalaria gehienez eta **SEI** gutxienez izan dezakete LL.FF.tan gazte mailako taldea ez dutenek, haien artean gutxienez hogeitabat beko (95/01/01 tik aurrera jaiotakoak) hiru jokalaria izan behar dituzte.

SEIGARRENA.- Areto-Futboleko Arbitroen Euskal Batzorde Teknikoak zuzenduta, dagokion lurralde Batzordeak izendatutako epaile batek eta kronometratzaile batek arbitratuko dute partida.

ZAZPIGARRENA.- Partidak 20 minutuko bi zati izango ditu. Bi zatiak kronometratuko dira, eta gehienez 10 minutuko atsedena egongo da.

ZORTZIGARRENA.- Arbitroei ordainsariak ordaintzeko beharra ez bada betetzen, Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplinazko Erregimenaren Arautegiaren 63. eta 51. artikuluek aurreikusitako zigorrak ezarriko dira.

BEDERATZIGARRENA.- parte hartzen duten taldeak aipatzen diren hurrengoak Aretxabaleta U.D., Atxurre Berri F.K.T, Elorrioko Buskantza F.K.E., Eraso Aiara A.F.K.T., Eskoriatza K.E., Gora C.D., Kukuyaga F.C., Mallabia F.T., Muskiz Areto Futbola, Oiartzun K.E., Otxartabe C.D., Sasikoa de Durango C.D., Scalibur C.D., Tudanca – Miranda C.D. eta Zalditxoia Futbol de Araia dira.

HAMARGARRENA.- Lehiaketa-sisteman talde bakarra dago, puntutara eta joan-etorriko partidekin. Guztira hogeita sei jardunaldi izango dira.

HAMAIKAGARRENA.- Igoera eta jaitsiera arloan Areto-Futboleko Euskal Ligako 1, 2, eta 3. postuetan sailkatutako klubak Hirugarren Maila Nazionalera igoko dira.

Kategoria honetako 15. postuan sailkatutakoa dagokion lurralde-ligara jaitsiko da. Sailkapenean horien berehalako aurrekoak ere, nahiz eta 15. postuan ez izan, dagozkien kategorietara jaitsiko dira, Areto Futboleko Hirugarren Maila Nazionalera aldi baterako gertatzen diren jaitsierei jarraiki, maila galduko dute, egoera hau aipatutako mailan klubak gehiegizkoa suposatzen duenean emango da.

Halaber, lurralde-kategorietako bakoitzeko lehenengo sailkatuak Areto-Futboleko Euskal Ligara igoko dira, eta Igoera Fasearen parte hartzaileak sailkapen ordenarekiko betegabeko postuak bete ditzakete.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL
ARETO FUTBOLEKO EUSKAL BATZORDEA

- 3 -

HAMABIGARRENA.- Lehiaketa honetan aginduko duten gainerako arau arautzaileak, eta Zirkular honetan jaso ez direnak, Euskadiko Futbol Federazioaren Arautegian jasotakoak izango dira.

Guztiak ezagutzeko eta dagozkion xedeetarako jakinarazten da.

2015eko irailak 4, Bilbon

KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General